


Emo-oroit

Adineko pertsonen gaitasun sozio-emozionalen sustapena narriadura kognitiboaren prebentziorako



Talde lana

Bilduma: Saiopaperak-Pentsamen.Gizartea, 37

Formatua: 140 x 225 mm

Orrialdeak: 160

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2023-11-20

ISBN paperezko edizioa: 978-84-9109-932-1

Materia: Helduentzako literatura



EROSKETA
AUKERAK

Paperezko edizioa

16,00 €

Narriadura kognitiboko prozesuek eragiten dituzten gaixotasunak (adibidez, alzheimerra) dira adineko pertsonen desgaitasun eta mendekotasunen arrazoi nagusiak. Gure inguruan, dementzia duten pertsonen kopuruak nabarmen egingo du gora, 2050ean biztanleriaren %4ra iritsi arte. Gaixotasun horien prebentziozko esku-hartzeek ikuspegi multifaktoriala izan behar dute. Horrela, Karolinska institutuaren FINGER (Finnish Geriatric Intervention Study to Prevent Cognitive Impairment and Disability) proiektuak frogatu zuen arrisku-faktoreak kontrolatzeko eta babes-faktoreak hobetzeko arlo-anitzeko esku-hartze batek dementzia-arrisku handia duten pertsonen narriadura kognitiboaren eragina murrizten zuela.

GOIZ ZAINDU izeneko ikerketa pilotu batean (2018-2020 urteen artean Beasainen egindakoa), FINGER metodologia euskal herritarrentzat egokitu zen. Osakidetzarekin eta Beasaingo udaletxearekin elkarlanean, CITA Alzheimer Fundazioak, beste erakunde batzuekin batera, 4 arlotako FINGER metodologia ezarri zuten: 1) Arrisku-faktore kardiobaskularren kontrol zorrotza, 2) Entrenamendu kognitiboa, 3) Entrenamendu eta jarduera fisikoa, eta 4) Ohitura dietetikoak eta nutrizio-ohiturak aldatzea. Berrikuntza gisa, Qualiker gure ikerketa taldeak bosgarren faktore bat gehitu zion: 5) Gaitasun sozio-emozionalen entrenamendua. Hain zuzen ere, azken arlo honen inguruko esku-hartzea biltzen du liburu honek.

EMO-OROITU, adineko pertsonen gaitasun sozio-emozionalen sustapena narriadura kognitiboaren prebentziorako programa diseinatzerakoan (liburuaren "III. Zatia), hezkuntza emozionala zahartzaroan ezartzeari buruzko kontzeptualizazio teorikoak "I. Zatia" eta gaiari buruzko ikerketen ekarpenak "II. Zatia" hartu ziren kontuan, adineko pertsonen bizi behar dituzten egoeretara modu eraginkorrean egokitzeko jarduera erabilgarriak diseinatu, inplementatu eta ebaluatuz. Horrela, EMO-OROITU (emozioen bitartez oroitu) izeneko esku-hartze programaren diseinuak sei gai-multzo hauek barne hartu ditu: I) Psikohezkuntza, II) Kontzientzia emozionala, III) Komunikazio emozionala, IV) Erregulazio emozionala, V) Bakardadeari aurre egitea, eta VI) Ongizate subjektiboaren sustapena.

Egileak

[Amaior Olarza](#)

[Naia Ros](#)

[Nekane Balluerka](#)

[Arantxa Gorostiaga Manterola](#)

[Aitor Aritzeta](#)

Aitor Aritzeta. Psikologian Doktoa. Emozioak eta Gaitasun sozioemozionalen irakasgaiko irakaslea Psikologiako Graduan, Euskal Herriko Unibertsitatean. Guztira 60 argitalpen inguru ditu, artikulu zientifikoak, liburuak eta liburu atalak batuta, eta 100dik gora kongresu zientifikotan parte hartu du. Psikologian genero ikuspegia kontuan hartzen duten hainbat egitasmotan parte hartu du, berdintasunaren legea ebaluatuz, lan ekipoen eraginkortasuna eta generoa ikertuz, lidergoa eta generoaren inguruko tesi bat zuzenduz, eta bide segurtasuna eta generoaren arteko harremana ikertuz.

[Goretti Soroa](#)